

35 EUSKALTZAIN URGAZLE BERRI

Maiatzaren 26an, Euskaltzaindiak Elantxoben egin zuen osoko bilkuran, 35 euskaltzain urgazle berri izendatu zituen.

Akademiaren Arautegia eta Barne Erregelak oinarritzat harturik, Euskaltzaindiak aldiro-aldiro izendatzen ditu euskaltzain urgazle berriak. Testu horietan esaten denari jarraikiz, euskalaritzan pertsona ezagunak nahiz idazle hautak edo euskararen jagoletzan nabarmendu direnak hautatzen dira.

Hala bada, Elantxobeko bilkuran, esparru desberdinetako profesionalak onartu ziren: zientzia, hizkuntzalaritza, irakaskuntza, kazetaritza, bertsolaritza, itzulpengintza, bibliotekonomia edota literatura arlokoak.

Akademiak 2003ko urtarrilaren 31n izendatu zituen azken aldiz urgazle berriak. Orduan batzorde akademikoetako kideak izendatu ziren, 21 orotara.

Hona hemen Euskaltzaindiko osoko bilkurak izendatutako euskaltzain urgazleak:

- | | |
|--|-------------------------------|
| 1. Alberdi, Dorleta. | 18. Gorrotxategi, Joakin. |
| 2. Alemán, Sagrario | 19. Ibisate, Angel. |
| 3. Apalategi, Ur. | 20. Iturbe, Jazinto. |
| 4. Aranbarri, Iñigo. | 21. Iturralde, Joxemari. |
| 5. Aranberri, Luis Alberto
«Amatiño». | 22. Jorajuria, Pello. |
| 6. Artola, Xabier. | 23. Juaristi, Felipe. |
| 7. Bijueska, Josu Koldobika. | 24. Kasares, Paula. |
| 8. Bujanda, Mikel. | 25. Kruzeta, Odile. |
| 9. Coyos, Jean-Baptiste. | 26. Laka, Itziar. |
| 10. Dufau, Agnes | 27. Meabe, Miren Agur. |
| 11. Egaña, Andoni. | 28. Mintegi, Laura. |
| 12. Epaltza, Aingeru. | 29. Mujika, Alfontso. |
| 13. Erdozia, Jose Luis. | 30. Oregi, Eneko. |
| 14. Etxebarria, José Ramón. | 31. Perez Gaztelu, Elixabete. |
| 15. Galé, Patxi. | 32. Sarraillet, Jakes. |
| 16. Gartzia, Pruden. | 33. Soulé, Bernadette |
| 17. Gómez, Rikardo. | 34. Zabaleta, Josu. |
| | 35. Zubiri, Juan Jose. |